



PDF irisgarria

2026eko Artzai Egunekeo egitaraua

Uharte Arakil. 58. urteurrena. 2026-08-30



Agurra

Urtero bezala, abuztuko azken igandean Artzai Egunaren 58. edizioa ospatuko dugu Uharte Arakilen.

Jai honen helburua artzainak omentzea da, eta Uharte Arakilera hurbiltzen diren guztiek egunaz gozatzea. Bertakoek zein kanpotik etorritakoek artzaintzako profesionalen lana zuzenean ikusteko aukera izango dute, baita egiten dituzten gaztak dastatu eta, nahi izanez gero, erostekoa ere.

Aurtengoan, gure artzainek egiten duten eguneroko ahalegina eta dedikazioa nabarmendu nahi ditugu; izan ere, haien konpromisoa da gure nortasuna eta kultura bizirik mantentzen dituen benetako motorra. Aintzat hartu nahi dugu beren lan nekaezinari esker antzinako lanbide hau sendo mantentzea, etorkizunari harrotasunez begiratzea eta aurrera egiten jarraitzea lortzen duten guztien meritua.

Artzaintza landa-eremuko lanbiderik tradizionalenetako bat da, eta garapen ekonomikoari nahiz ingurumenaren jasangarritasunari ekarpen handiena egiten dioten

jardueretako bat. Horregatik, jai honen antolatzaileok neurriak ezartzen jarraitzen dugu, ospakizuna gero eta jasangarriagoa eta herrira hurbildu nahi duten pertsona guztientzat irisgarriagoa izan dadin.

Hemendik, gure eskerrik beroenak Artzai Eguna arrakasta handiz ospatzea posible egiten duten profesional, erakunde eta babesle guztiei.

Etorri Uharte Arakitera abuztuaren 30ean. Zure zain izango gara!

Rubén Uharte Razkin (Aralar Mendi Elkarteko Lehendakaria)

Egitaraua

10:00

- Irekiera ekitaldia.
- Epaimahaiaren osaera.

10:30 – 13:30

- José Mari Ustarroz Nafarroako ardi latxen esne gordinarekin egindako 45. gazta-lehiaketa.
- Gazta-feria.
- Artisautza-feria.

10:30 – 13:30

- Nafarroako ardi latxen erakusketa eta esne-gordinaren 41. lehiaketa.
- Latxa arrazako aziendaren estatuko 21. lehiaketa.

11:00 – 14:00

- Artzain txakurren 32. erakusketa.

11:00 – 13:00

- 37. ardi-moztaileen txapelketa.

11:30

- Artalde herritik pasatzea.

11:45

- Ardiki dastaketa.
- Gazta freskoaren dastaketa.

13:00

- Omenaldia.

13:30

- Lehiaketaren sari-banaketa.
- Gazta irabazlearen enkantea.

17:00

- Nafarroako artzain-txakur 58. txapelketa. Oñatiko Nazioarteko Txapelketan zein Euskal Herrikotan sailkatzeko baliagarria.

Kontaktu-datuak

Web: <https://artzaieguna.eus/> - Posta: info@artzaieguna.eus - [Facebook](#) - [Instagram](#)

Antolatzailea



Laguntzaileak



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Desarrollo
Rural y Medio Ambiente
Landa Garapeneko eta
Ingurumeneko Departamentua



Plano Uharte Arakil. Artzai Eguna

- 1
 - Concurso y venta de quesos
 - Elaboración de queso artesanal
- 2
 - Puestos de artesanía
- 3
 - Concurso y degustación de guiso de oveja



- 4
 - Concurso de oveja lacha
 - Exposición de razas de perros pastores
- 5
 - Concurso de esquileo
- i
 - Punto de Información
 - Sociedad Aralar Mendia